



2002/11/04ko prentsa-oharra


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI)**2002ko iraila**

EUSKAL AE-KO INDUSTRI JARDUERA % 0,7 HAZI ZEN 2002KO IRAILEAN

Irailak iaz baino lanegun bat gehiago izatean, indize orokorra % 3,1 jaitsi da, lan-egutegiaren balio homogeneousan.

2002ko irailean, % 0,7 igo zen Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizea, aurreko urteko hil beraren aldean, Eustatek eskaintako datuen arabera. Igoera hori, ordea, lanegunen balio homogeneousan neurtuta, % 3,1eko jaitsiera da, joan den irailak 2001ekoak baino lanegun bat gehiago izan baitu. Horiek horrela, urteko lehenengo bederatzi hilabeteetako tasa metatua % 1,3 murriztu da, aurreko urteko aldi beraren aldean, balio absolututan.

Euskal AE-ko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1997-2002



Iturria: EUSTAT.

2002ko irailean, urte arteko aldakuntzarik positiboak sektore hauei egokitu zaizkie: *petrolioaren finntzea* (% 10,8), *larruaren eta oinetakoen industria* (% 7,0), *zurgintza* (% 5,9), *kimika-industria* (% 4,9), *ez-metalezko industria* (% 4,7) eta *garraio-materiala* (% 4,3), besteak beste.

Urte arteko tasarik negatiboenak, besteak beste, honako hauek izan dituzte: *elikagai-industria* (% -5,3), *papera, argitalpena eta arte grafikoak* (% -4,6), *makineria* (% -3,3), *kautxua eta plastikoa* (% -1,6) arloek, batik bat.

Urteko lehenengo bederatzi hilabeteetako balantzean, balio absolututan, % 0,7 igo da kontsumo-ondasunen indizea, eta jaitsi, aldiz, ekipo-ondasunena (% -2,8) eta bitarteko ondasunena (% -0,4).

Industri Produkzioaren Indize Orokorrak irailean izandako aldakuntzak, 2001eko irailaren aldean, positiboak izan dira hiru lurraldeetan: Araban (% 1,0), Bizkaian (% 0,7) eta Gipuzkoan (% 0,5).

Urteko lehenengo bederatzi hilabeteetako balantzean, lanegunen zuzenketarik gabe, aldakuntzek zeinu bera, baina intentsitate desberdina izan dute hiru herrialdeetan: Gipuzkoan %1,6 jaitsi da, Bizkaian %1,5 eta Araban gutxixeago, % 0,4.

Taula: 2002ko IRAILA. Industri Produkzioaren Indize Orokorren hazkunde-tasa (%).
Euskal AE

Kontzeptua	Aurreko urteko hil beraren aldean		2001eko urtarrila-iraileko tasa metatua		2002ko urtarrila-iraileko tasa metatua	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
Indize orokorra:						
Euskal AE	0,7	-3,1	0,0	0,1	-1,3	-1,1
Araba	1,0	-3,0	-0,3	-0,2	-0,4	-0,1
Bizkaia	0,7	-2,8	-0,4	-0,4	-1,5	-1,3
Gipuzkoa	0,5	-3,5	0,8	0,9	-1,6	-1,4
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE						
Bitarteko ondasunak	3,6	0,2	1,1	1,2	-0,4	-0,2
Kontsumo-ondasunak	0,5	-3,5	-0,8	-0,8	0,7	1,1
Ekipo-ondasuna	-3,0	-7,5	-1,1	-1,0	-2,8	-2,6

(*) Lanegunez zuzendua.

Iturria: Eustat.

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.: 945 017 500. Faxa: 945 017 501. E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso Tel.: 945 017 514. Faxa: 945 017 501 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	--